

BIZITZA ESKUKADAKA

AINHOA TIRAPU





Ainhoa Tirapu

BIZITZA ESKUKADAKA

* * * *



FUNDAZIOA

LETRAS & FÚTBOL

2019



© Testua: Miren Rubio Iturria / Ainhoa Tirapu

© Argitalpen honena: Athletic Fundazioa 2019.

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein berregintza, komunikazio publiko edo moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke (Kode Penaleko 270 eta hurrengo artikulua).

* * * *

Zuri-zuriak dira, apain gorri eta eskumuturretara ongi egokitzeke belkroarekin, telebistan ikusten ditudan atezainen eskularruen gisakoak. Niretzako direla esan dit Lidia entrenatzaileak, opari txiki bat, eta gogoko ditudala adierazteko jantzi ditut berehala. Eskutzar bi erakusten dizkiot. Neurrigabekoak dirudite nire gorputz argal eta luzearen aldean. Irribarre zabalez, marrazki bizidunetako panpin bat ematen dut.

Hamabi urte besterik ez ditut, belarrietarainoko adats laburra eta kolpe txikienarekin odolatan hasten den sudurra. Bizitza osoan zehar, goi-mailako futbolari izanda ere, itzal egingo didan izengoitiaren jabea naiz honezkero: sensi, gaztelerazko sensible hitzaren laburduraz deitzen didate Lagunak areto-futboleko taldekideek. Nik ez nuen atezaina izan nahi. Ez nuen ez gogo ez adore nahikorik baloi bakar bat ere gelditzeke. Baina, oinekin baino eskuekin hobeto moldatuko nintzelakoan jarri ninduen atezain entrenatzaileak, eta geroztik gero eta sarriago jokatzen dut postu horretan. Ia beti.

Urtebete daramat Barañaingo nesken futbol taldean jokatzeko, eta baloiari nion beldurra desagertu ahala apaldu zaizkit hasierako kexuak eta negarrak. Taldekideentzat sensi izaten jarraitzen dut, hala ere; ni beldurtzeko ahalik eta zartakorik handiena jaurtitzen segitzen dute. Neuri ere kosta egiten zait nire burua atezain moduan irudikatzea. Lidia entrenatzaileak badaki ni nola limurtu, baina. Eskularru zuri eder parearen oparitan ekartzeak berezi sentiarazi nau.

Langaren azpian kokatu naiz nire eskutzar zuriekin taldekideen jaurtiketei erantzuteko prest. Hatzen eta eskularruaren arteko hutsunea sumatzen dut.

Nekez imaginatu dezaket antzeko eskularruekin irabaziko ditudala bi Espainiako Liga, jokatzeko dudala Munduko Futbol Txapelketan, txalotuko nautela jendez lepo dagoen San Mamesen. Nekez imaginatu dezakedan moduan zenbaterainokoa den jokaldiko azken erantzulea izatearen presioa, onena izan beharraren estutasuna, antsietatearen gordina, emakume izanik profesionalizatu ezinaren nekea.

Orain dakidana da, eskularru eder batzuk jantzita, Barañaingo Lagunak areto-futboleko atezaina naizela. Eta gola sartu berri didala ni baino urtebete zaharragoa den Erika Vazquez izeneko taldekideak. Oso ona da.

Hatzak koipeztuta ditut patata poltsan sartu-irtenean aritzeagatik. Egongelako armairuan gordetzen ditu amonak bazkari berezietarako plateren artean, eta baimenik eskatu gabe hartzen ditut bisitan nagoenean. Besaulkian eserita dago Osasunaren partidua telebistan ikusten. Bere oinen alboan nago ni eserita, lurrean, bizkarra besaulkiaren kontra eta patata poltsa belaunetan.

Iganderoko errituala da. Lau urterekin Larragatik Barañainera bizitzera etorri ginenetik harreman estua dugu amonak eta biok, eta ia astebururo igotzen naiz bere etxera elkarrekin futbola edo beste kirol ekitaldiren bat ikustera. Telebistan ez denean, irratian. Baina beti kirola. Emakume zalerik apenas zegoen garaian egin zen bera Osasunako bazkide, aitonak zaletuta, dio, eta futbol zelaira ere tarteka joaten zela kontatu dit. Belaunetarainoko gona, jertse urdin argi eta ongi orraztutako kizkurrekin imaginatu dut harmailetan. Emakume bakarra.

Bittor Alkiza jokalaria sinatutako kamiseta daukat jantzita nik, ez Osasunarena. Aita bezain Athleticzalea naizela ikusita, oparitan ekarri zidan gurasoen lagun batek, futboleko apuntatzeko proposatu zidan berberak. Gure etxe-dorrearen alboko zelaigunean ikusten ninduen futboleko jokatzeko. Kaleko eserlekuak ate bihurtzen genituen batzuetan, jertse pilatuak ziren zutoinak besteetan, eta auzokideak

txandaka aritzen ginen. Hala ere, nik ez nekien Barañainen bertan neskentzako Lagunak izeneko futbol taldea zegoenik, eta gurasoen adiskideari esker hasi nintzen bertan areto-futboleant jokatzen, atletismoarekin eta irristaketa artistikoarekin batera. Ezin guztiak uztartu, futboleant jarraitzea erabaki nuen, atezain eta Athleticzale sutsu.

Lagunak taldearen hamaikako lehen taldeant aritzen naiz orain.

Arbitroak azken hiru txistuak jo eta sukaldera abiatu da amona Osasunako kanpoko fitxaketak alfer galantak direla esanez. Atzetik noa ni poltsa eta papurrak eskuan bilduta. Osasunaren porrota alboratu eta ea ikastolan hobeto nagoen galdetu dit. Baietz, nik. Futboleant hasi nintzenetik ez nabil hain bakarti. Lagun berriak egin ditut eta lagun zaharrekin ere beste modu bateant moldatzen naiz. Irakasleek igarri dute aldaketa, diote, eta nire eskolako notek ere bai. Futbolak on egin didala dio amonak, zalantzarik gabe.

Nire afaririk gogokoena prestatzeari ekin dio, gaur ere: berak bakarrik lortzen duen haragi samurrarekin egindako eskalopea.

Eskekin estaltzen dut aurpegia. Burumakur, etxe-dorreko teilatuko albo bateant nago eserita, nire baitara bilduta. Arratsaldeko partidant egin duan akatsak amorratuta nauka, taldekidearen arauk kanpoko areako pasea ezin burutik kendu. Eta hala jarraituko dut etxera itzultzeant, afaltzeant, oheant; jokaldia behin eta berriz errepasatzen.

Urtea gogorra izaten ari da. Unibertsitaterra egokitzea nekeza izan da, kimika ikasketak gustukoak izanda ere. Eta futboleant nahi baino gutxiago jokatzen dut. Gutxiegi. Aurreko atezaina Levantetik itzuli denetik bera da Lagunakeko titularra, eta tarteka bakarrik aritzen naiz orain Superligant. Kanpoant ere, gutxiago. Espainiako emakumezkoen 19 urte azpiko futbol selekzioko entrenatzaileak ez nau berrito deitu.

Buru gainetik burrunbatsu pasa da hegazkina, lur hartzetik gertu. Madrilerant joan nintzenekoa gogorarazi dit: nola hartu nuen nire lehen hegazkina Espainiako selekzioarekin entrenatzera joateko, eta nola aurretik aita bere lagun pilotu batengana eramant ninduen hegazkin txiki bateant Iruñea gainetik ibiliz ohitzeko. Nire zorabioa ikustekoa izan zen... Laster ohitu nintzen, dena den. Goi-mailako futbolaria izateko selekzioarekin aritzea aukera ona izan zitekeela konbentzitu, hainbatetan hartu nuen Madrilerako hegazkina.

Entrenamendu guztietara joatearen alde egin nuen, nire ikasketen kalterako.

Unibertsitaterako hautaproben atarian ia hilabete eman nuen kanpoan, Suediako Eurokopen, eta errekuperaketak astebete eskasean egin behar izan nituen. A ze poza nirea emaitzen gutun-azala zabaldu eta unibertsitateko hautarproba egiteko papertxo arrosa ikusi nuenean! Ikasgai guztiak gaindituta nituen, askoren harridurarako.

Hainbesteko esfortzua ez da nahikoa jokatzeko jarraitzeko, baina. Aldageletarako bidean ginela ze hamaikako jarriko nuen galdetu zidan iaz Espainiako selekzioko entrenatzaile fisikoak. Beste atezainaren izena proposatu nuen, taldearentzat onena izango zelakoan. Berak “a ze anbizio gutxi” bota zidan lehor. Iltzatuta geratu zait esaldia. Handik gutxira arazo bat genuela esan zidan entrenatzaileak: prestatzaile fisikoak ez gintuen ez ni ez beste atezaina gogoko. Anbizio gutxiegi, nonbait. Ez gaituzte berriro deitu.

Lagunak taldearekin bestelakoa da. Etxean nago. Amak harmailetatik ikusten ditu partidak, aitak etxeko begiratokitik; zelaia etxe-dorrearen alboan baitago. Irabazten joanez gero, leihoan geratuko da aita. Bestela, etxe barrura sartuko da. Athleticen partiduak telebistaz ikusten dituenean bezala, bizkarra emango digu galtzen joanez gero, zorte txarraren erruduna bera izateko beldurrez.

Etxeko taldean jokatzek badu horregatik bestelako esanahia, eta etxean huts egiteak badu horregatik aparteko zama. Hainbestekoa, partida bukatu eta inori ezer esan gabe alde egin dudala etxe-dorreko teilatura. Bakarrik egon nahi dut. 18 urte izanagatik ere, oso garbi baitaukat goi-mailako futbolaria izan nahi dudala. Futbola dela benetan maite dudana. Baina horretarako askoz gehiago jokatu behar dut, eta bidea estutzen besterik ez dut ikusten nik.

Etxeko zabalgunee honetatik nekez irudikatu dezaket laster izango dudala horretarako aukera. Laster hegazkinean ibiliko naizela joan-etorrian.

Eskuak izerditsu sumatzen ditut eskularru barruan, eguzkiak erruz jotzen baitu Sevillako Sanchez-Pizjuan futbol-zelaian. Aurreneko nagore lehen mailako estadio batean, aurreneko ere Erreginaren Kopako finalerdia jokatzeko. Badajozko Puebla futbol taldearen kamiseta daukat soinean, Sevilla aurkari. Markagailua gure alde irauli da.

Orain hilabete jaso nuen Puebla taldeko presidentearen deia, Lagunak taldearen entrenamendua bukatu berrian: ekainean Erreginaren Kopa jokatu eta hurrengo urte osoa beraiekin jokatzeko proposatu zidan, azterketak egiteko joan-etorriak eta diru-sari txi-

ki baten truke. Hainbestekoa izan zen nire ezustekoa, telefonoa eskegi bezain azkar brast kontatu niola aldagelako albokoari. Denbora tarte eskasa izan nuen erantzuteko, Lagunak taldean ere ongi pentsatzeko gomendatu zidaten, ezingo zidatelako lekua gorde, baina segidan hartu nuen erabakia.

Futbolean jokatzeko aukera aparta zen. Minutu gehiago jokatzeko bidea.

20 urterekin futbola utziko nuela errepikatu izan dit aitag umetatik, baina kontrakoa egin dut nik. 20 urterekin maleta egin, Maitane ahizpa eta gurasoak agurtu, eta Badajozko Puebla de la Calzada herrian nago geroztik, Puebla taldean.

Estreinakoz entzuten ari naiz lehen mailako estadio baten burrunba. Zirrara berezia sortzen du. Ez dago harmailak betetzeko adina jenderik, baina orain arte jokatu dudana partidurik jendetsuena da; nabaritzen da bestelako zaleak daudela, gertuko lagun eta zaleez aparte. Giro ederra dute, kantuan etengabe. Eta ongi jokatzeko ari naiz, izterraldean kolpe gogorra jaso badut ere, gozatzeko moduan.

Arbitroak partida amaitutzat jo bezain pronto lehertu da festa. Erreginarene Kopako finalera pasa gara. Levante izango dugu aurrez aurre, ez da batere erreza izango, baina finalera pasatze hutsa bada guretzako

garaipen berezia. Eta hau ospatu behar da, gogotik gainera.

Levanteren kontrako finala izango da, ordea, Puebla taldearekin jokatzeko dudana azken partida.

Hatzen artean pasatzen dut boligrafoa, urduri. Kimikako apunteak ditut parean, baina burua airean. Athleticen atezaina bihurtzear nago.

Iñigo Juaristi Athleticen entrenatzailearen deia jaso dut. Bere izena entzun dudanerako sartu naiz komunean, pisukideetatik aparte, eta bainuontziaren ertzean eserita entzun dut eskaintza: Eli Capa atezaina erretiratze dago, ni nahi naute Athleticen.

Pisukideei ezer esan gabe itzuli naiz ikasteko mahaira. Badajozen nago, Levanteren aurka Erreginarene Kopako finala jokatzeko egun gutxira, eta azken azterketak prestatzen nabil. Alferrik, baina. Nire poza hainbestekoa da, ezin dudala ezer ere ikasi.

Erika Vazquez taldekide ohi eta lagunari deitu diot. Athleticen dago bera aurrelari. Nire deiaren zain zegoela erantzun dit, berak pasa diolako nire telefono zenbakia Juaristiri, eta etortzeko, Athleticen oso ondo dagoela.

Nola ez naiz joango nire betiko taldera.

Ukabila estutzeko eskatu dit medikuak. Athleticen sartzeko mediku frogak egiten ari naiz atezainarena ez den kamiseta zurigorri batekin. Bihotzaren taupadak neurtu dituzte gero. Sendagilearen esku-ohean nagoela atera didate Athleticen nesken taldean egongo naizela iragartzeko argazkia, mimo handirik gabe. Flashak izoztu du nire irribarre lotsatia.

Ekaina amaitzear da. Ez dago ia inor Lezaman. Iñigo Juaristi entrenatzaileak lasai erakusten dizkigu instalazioak gurasoei eta hiruroi. Ezagutzen dut zelaia, hemen egin nuen nik debuta lehen mailan Lagunak taldearekin. Zazpi eta bat galdu arren, ez diot inolako errezelarik, alderantziz. Bertan jokatzeko desiratzen nago.

Aurrerantzean hona etorriko naiz arratsaldero

entrenatzera, EHUko Leioako Kimika Fakultateko klaseen ondotik. Atheticeko Derioko erresidentzian hartuko dut ostatu; mantenua futboleant aritu ahal izatearen truke. Eta etxetik gertuago egongo naiz, senideak eta amona bisitatzeko moduan.

Minutu gosez nator, gainera. Superliga irabazi berria du Athleticek, hirugarrena, eta nire onena erakutsi nahi dut. Hori esan diot Juaristiri.

Taldean gauzak hain ondo ez daudela ezkutatu dit berak, aldiz. Dimititzear da, zuzendaritzarekin dituen desadostasunengatik; emakume taldeak babes gehiago behar duelakoan baita, baliabide gehiago. Beste sei dimisio kateatuko dira berearen atzetik.

Athleticen emakumezkoen taldea kinka larrian egongo da laster. Nire pozak gutxi iraungo du.

Xigortutako haragi zati bat dut eskuineko eskuarekin heltzen dudana platerean, freskagarria ezkerrekoan. Europako Txapeldunen Ligako arduradunek antolatutako barbakoa nago, Herbeheretako Utrecht hirian. Athleticeko kideez gain, aurkari izan ditugun taldeetako jokalaririk daukade. Baita arbitro, entrenatzaile eta prestatzaileak ere. 2005eko abuztua da.

Agur festa da guretzat, ez baitugu behar adina puntu lortu jokatu ditugun Europako Txapeldunen Ligako hiru partidatan. Glasgow City taldearen kontrakoa izan zen aurrenekoa, nire Athleticeko debuta. Sei eta bi irabazi genuen, baina sentsazio gazi-gozoarekin geratu nintzen sartu zizkidaten bi gol horien erruz. Hurrengo bi partidetan txukun aritu ginen. Alferrik, baina. Belgikako Rapide Wezemaal taldearen kontra hiru eta huts irabazita ere, bana egin genuen hurrengo norgehiagokan, Holandako Saestum taldearen aurka. Eta, puntu nahikorik gabe, Europako Txapeldunen Ligatik kanpo geratu gara.

Golak sartu dizkidaten jokalaririk ditut aurrez aurre, adeikor agurtzen, haragi zati bat murtzikatzen dudala.

Festak badu guretzat bestelako esanahia, hala ere: Gari Fullaondo entrenatzailearen agurra ere bada. Juaristiren dimisioaren ondoren, bera ipini

dute behin-behinean entrenatzaile Europako Txapeldunen Ligari aurre egiteko. Fullaondorekin ongi moldatu gara, gustura jardun du taldeak. Txapelketa bukatuta, ordea, nor etorriko zain gaude berriro. Ate joka dugun Ligan zer gertatuko den kezkatuta dago taldea, Juaristiren dimisioak soka-luzea eragin baitu.

Eta eragiten jarraituko du.

Hatzeekin mugitzen eta estutzen dituzte eskuetako hezurak, klak egin arte. Aulkitik ari naiz Levanteren aurkako partida jarraitzen, 2005-2006ko Ligako zortzigarren jardunaldian. Urduri nago, aulkian beharrean zelaian egongo nintzela uste bainuen.

Orain arteko Europako eta Ligako partidu esanguratsu guztietan defendatu dut Athleticeko atea, Juan Carlos Iza entrenatzaile berriak hala erabakita. Gaur, aldiz, beste atezaina aukeratu du, Levante aurkari gaitza izanda ere. Ez nuen espero. Arraroa egin zait, beste atezainak maila ona badu ere.

Azken momentuko erabakia izan dela konturatu naiz gero, gainera. Taldearen estrategia adierazteko

entrenatzailearen paperetan nire zenbakia zegoen idatzita. Ni egotea aurreikusita zegoen, beraz. Aldaketaren bat egon da azken unean.

Ez da gaurko ezusteko bakarra, dena den. Juaristiri eskertza adierazteko bere izengoitiari erreferentzia egiten dion kamiseta jantzita dugu jokalaria askok: pájaro loco marrazki bizidunaren irudia dugu paparrean, kamiseta ofizialaren azpian, gola sartzerakoan harmailari erakusteko. Taldeko arduradunak jakinaren gainean daude, eta ideia baztertzeko eskatu diote Itziar Gurrutxaga kapitainari.

Kamiseta soinean daukagu guk, kontrara.

Partida amaitu bezain pronto zelaiaren erdira jo dugu jokalariaiok, eta, kamiseta altxata, Juaristiren omenezko irudia erakutsi diogu harmailari. Gure babesa adierazi nahi diogu emakumezkoen taldearen alde erakutsitako jarreragatik.

Keinua ez da denen gustukoa izan, eta eragina izango du laster. Kanpoko korapiloek gero eta gehiago estutuko dute aldagela. Iza entrenatzailearekin lortuko ditugun emaitza kaskarrek ere hauspotuko dute egoera hori. Athletic ez baita zelaian iazko txapelduna. Eta nik gero eta gutxiago jokatuko dut zelaian.

Eskuekin estutzen dut sabelaldea. Negar batean nago, ezin amak telefonoz eman didan albistea irentsi: amona hil berri da.

Derioko erresidentziako gelan nago, bakarrik. Ostiraleko arratsaldeko bostak inguru dira, amaren deia jasotzeko ezohiko ordua. Zer edo zer gertatu dela jabetu naiz berehala, baina ez nuen halakorik espero, amona gaixo egonagatik ere.

Aste gutxi ziren azkenengoz ospitaleko ohean ikusi nuenetik. Ordurako jada ez zen bera. Ilek kizkurak lasatuta, ahul, inor ezagutu ezinean. Iruñean berarekin izandako azken bazkalostea etorri zitzaidan burura. Besarkatzeko eskatu zidan, akaso ez ninduelako berriro ikusiko. Arrazoia zuen. Handik oso gutxira eraman zuten ospitalera eta memoria atzeraka joan zitzaion, haurtzaroraino.

Hustu arte egin dut negar. Hogei urterekin heriotza ez da inoiz espero, eta are gutxiago niretzako hain garrantzitsua izan den amonarena.

Entrenamendura joatea erabaki dut, hala ere. Marta eta Erika jokalariei bakarrik kontatu diet gertatutakoa. Entrenatzaileak ez daki ezer eta igandeko partidurako deitu nau; ordezkot, orain ere. Denboraldi gogorra izaten ari da, gutxi jokatzen ari naiz, askotan aulkian, eta Izarekin taldea Ligako lehen ezin postuetara iritsi dabil.

Hurrengo egunean autobusa hartu eta senideekin elkartu naiz Iruñean, eta igandean bueltan ekarri naute gurasoek eta euren lagun batek. Lagunak ez du ulertzen zergatik itzuli behar dudan, are gutxiago tenorez iritsi partidara. Ez diot esan inork ez dakiela ezer. Ez diot esan minutu gutxiegi jokatzen ari naizela.

Amona Osasunako harmailetan imaginatu dut, emakume bakarra.

Txaloka animatzen ditut taldekideak, aldagelatik entzuten dugun harmailetako orroak kutsatuta, zirikatzeke sena bizi-bizi dudala. Lehen aldiz jokatuko dut gaur San Mamesen, eta hunkigarria zaizkit aldagelatik entzuten diren kantuek, oihu eta turuta hotsak, oilo-ipurdia jartzeraino. Bestelakoa da San Mames. Zaleak bertan daude.

Atletico Madril izango dugu aurkari 2006-2007ko 24. jardunaldian. Partida guztiak dira aurten hil ala bizikoak, Liga irabazteko buruz-buru gabiltzalako lehia Espanyol taldearekin. Iñigo Juaristi entrenatzailearen itzulerak taldea berpiztea lortu du aurten, eta Athletic bere onena ematen ari da. Athletic Athletic da.

Iazko denboraldia bereziki gogorra izan zen niretzat. Amonaren heriotzak, jokatu nituen minutu eskasek

eta Ligan bosgarren geratu izanak hankaz gora jarri zituen nire aurreikuspenak. Gehiago jokatuko nuelakoan nengoen Pueblatik Bilbora etorri nintzenean.

Oviedora joateko eskaintza jaso nuen denboraldia amaitzeaz zegoenean. Giro hartan duda-mudan nenbilen: nire Athleticen geratu, liskarrak-liskar, edo Oviedon minutu gehiago jokatzea joan. Erabakia hartzeke, zalantzak uxatu zizkidan Iñigo Juaristiren deiak. Entrenatzaile izatera itzuliko zela jakinarazi zidan. Hori entzun bezain pronto Athleticen geratzeko erabakia hartu nuen.

Geroztik, denboraldi osoa daramat titular.

Eskuin oinarekin zapaldu dut San Mameseko zelaia, nahita, eta partidetan bakarrik erabiltzen ditudan muda beltzak ditut jantzita. Futbolari guztiok dugu erritual bat edo beste. Hunkigarria zait San Mamesen egotea.

Ez dago 2003ko errekorra gainditzeko adina jenderik. Orduan 35.000 ikusle batu ziren San Mamesen. Gaur 20.000 bat. Giro aparta dute. Gurekin ospatu dituzte zaleek Atletico Madrili sartutako bost golak. Bakarra sartu digute eurek. Ezin ospakizun egokiagorik niretzat, denontzat.

Eskuekin igo dut kamisetaren lepokoa, negarrez hasi aurretik aurpegia estaltzeko, eta belaunak iltzatu ditut penalti-arearen erdian. Marta Monerok beste hainbeste egin du zelaiaren erdian. Ligak eskuetatik ihes egin digu.

Torrejón taldearen kontra jokatu berri dugu 2006-2007ko Ligako azken partida. Hiru puntuak behar-beharrezkoak genituen orpoz orpo dugun Espanyol taldea gainditzeko. Horregatik itzuli gara San Mamesera, zaleen babesarekin garaipena eskuratu eta norgehiagoka ospakizun bilakatzeko. Liga irabazteko. Ahalak eta leherrak eginda ere, ez ditugu Torrejónekoak mendean hartu. Hutsean geratu da markagailua.

Hiru txistu labur eta lixto, gureak egin du.

Amorruak jaten dit barrua. Irabaztea zen aukera bakarra. Belauniko oraindik, burua atera dut kamiseta barrutik, eta ulertzen ez dudan eszena dut parean: jokalarien aulkian dena da festa eta besarkada, eta harmailetan zoratzen daude zaleak, soinua ateratzeko puzgarri laranjak zaratatsu jotzen, eta Txapeldunak kantua ozen abesten.

Ez dakit ez nork, ez nola, baina Espanyolek bere partida galdu duela esan didate. Sinesgaitza. Puntu bakarreko aldearekin guretzat, Athleticentzat da 2006-2007ko Liga.

Erabateko etsipenetik zoriontasun betera pasata, laster batean ikusi dut nire burua taldekideekin arraunarena egiten San Mames erdian. Laster ere besoak gorantz txaloka, zaleen kantu eta zalapartak eskertzen. Eskerrik asko dioen pankarta handi bat atera dugu zelai erdira. Kartoizko kopa bat eman digute, eta benetakoa balitz bezala erakusten diegu zaleei. Nire lehen sari garrantzitsua da.

Eskuz esku dabil Ligako kopa, atoiak balantza egin arren. Liga irabazi dugula ospatzeko gaude talde guztia Athleticcek prestatutako kamioiaren atoi irekian, etengabe jauzika eta dantzan Kepa Junkeraren Harrobiaz harro kantuarekin. Bi baffle handi daude bazterretan, eta papertxo zuri-gorriak erortzen dira euriaren moduan, nonahi. Kopa ere bete da papertxoz, eta tarteka husten dugu jokalaria baten buruaren gainean.

Kimikako praktiketako irakasleari baimena eskatu diot ospakizunetan parte hartzeko. Tira, baimena eman edo ez berdin-berdin alde egingo nuela ohartarazi diot, eta bata zuria eskegita etorri naiz harrapaladan Ibaiganera.

Torrejón taldearen aurkako partidaz geroztik ari gara ospakizunak kateatzen. Aldagelako dutxetan aurrena, Juaristi entrenatzailea blai-blai utzita, eta gero afaria, elkarri txantxak etengabe eginez. Gaur ospakizun ofiziala dugu Bilboko kaleetan.

Aurrekoetan baino jende gutxiago dagoela esaten didate taldekideek, baina niretzako jendentza da. Al-
dundiko balkoi zatikatuan doi-doi sartzen gara guztiak, eta behean ditugun zaleei eskaini dizkiogu hitz batzuk, kopa gorantz mugitzen dugula. Udaletxean ere berdin. Puzgarri laranja elkar jotzen hartu gaitu zalegoak. Udaletxeko arabiar aretoa erakundeetako ordezkari beteta dago, Iñaki Azkuna alkatea eta Ana Urkijo Athleticen presidentea buru egiten. Gu ospatzeko gogo biziz gaudenez, ez da erraza denak elkarrekin jardutea, protokoloa betetzea. Eba Ferreira eta Arrate Orueta jokalariai balkoira atera dira euren kabuz zaleekin kantuan jarraitzeko.

Athleticen nesken taldearen laugarren kopa da gaurko benetako protagonista, hala ere. Denek nahi dute kopa hartu, denek nahi dute koparekin argazki bat. Baita nik ere.

Bederatzi denboraldi beharko ditugu halako argazki bat errepikatzeko. Eta tartean futbolari moduan biziko dudan unerik gogorrenetako bat pasa beharko dut. Gaur, baina, dena da ospakizuna.

Makuluak eta aterkia eskuekin eusteko ahaleginean naizela irrist egin dit aterkiak. Fakultatetik autobusa hartzeko bidean mela-mela eginda bukatu dut. Nire ileko uhinak desagertuta, txakur busti baten moduan iritsiko naiz Lezamara.

Ez noa entrenatzera, ordea. 2008-2009ko denboraldia hasi eta hilabete gutxira apurtu ditut belauneko lotailuak, eta geroztik EHUko kimikako klaseetatik Lezamako errekupeazio saioetara joan-etorrian nabil, makuluekin ezin erabat egokitu. Hilabeteak daramatzat horrela.

Erritmo onean ari naiz osatzen, behintzat. Athleticen denboraldian ezer gutxi jokatzeko aukera izango dut aurten, baina laster Espainiako selekzioarekin jokatzeko moduan izango naizela espero dut.

Pasa den denboraldian jaso nuen Madrilgo deialdirako faxa. Ez ninduen harritu, baina bai poztu. Euskadiko selekzioko hautatzailearen erruz behar baino arinago jakin bainuen Espainiako selekzioan jokatzekoa nintzela. Sebastian Martijak deitu ninduen zoriontzeko eta, zertaz ari zen ulertzen ez nuela antzemanda, hautatua izan nintzela esan behar izan zidan. Espainiako selekzioaren mezua handik gutxira iritsi zen klubera. Berdin-berdin poztu nintzen, selekzioa baita gaur egun nazioarteko

goi mailako futbolean jokatzeko daukadan bide bakanetakoa, eta nire eguneroko jardunarentzat babesa ere bada, are gehiago soldatarik gabeko neska futbolari batentzat. Babesle gehiago esan nahi baitu selekzioak, esaterako. Horregatik, profesionalki suposatzen duen guztiagatik, nahi dut lehia mota horretan parte hartu, presioa ikaragarria bada ere.

Horretarako, baina, belauna osatu behar dut lehenengo. Aterkia zakarretara bota dut azkenerako.

Sekula ez ditut beso-eskuak hain zurrun sumatu norgehiagoka batean. Hanketan ere indarra falta zait. Taldea ezin asmatu dabil Bartzelonaren aurka. Berdinduta iritsi gara atsedenaldira, baina kostata. San Mamesen elkartu ditugun 26.000 zaleen berotasunak ez du lortu taldearen urduritasuna arintzea.

2012-2013ko Ligako sailkapeneko lehen postua jokatzeko ari gara gaur talde katalanaren aurka. Denboraldi osoan zehar buru egin dugu taulan, Bartzelonarekiko zortzi puntuko aldea ere izan dugu une batean, baina koska bat kendu digute partidaro, puntu bakar bateko aldearekin geratu arte. Jardunaldiko azken partida da gaurkoa, azken aukera.

Bartzelonaren beste gol bat eta eurentzat izango da Liga.

Juan Luis Fuentes entrenatzaileak gogoia zelaira lotzeko eskatu digu atsedenaldira, burua hozteko. Hirugarren minutuan sartu diguten golak min handia eman baitugu. Dit. Iaz iritsi zen Fuentes taldera eta, iaz bezala bigarren ez geratzeko, soseguz jokatu behar dugula oroitarazi digu.

Erreginaren Kopako azken finala dugu denok buruan. Espanyol taldearen aurka irabazteko faboritoak ginen iaz Las Rozaseko zelaian, Bartzelona txapelduna finalaurrekoetan kanporatzea lortu baikenuen. Lehen momentutik sentsazioa kaskarra izan zen, ordea. Arbitroarekin jai genuela ikusi nuen hasiera-hasieratik. Futbol federazioko arduradunek Espainiako ereserkia jarri gabe partiduari ekiteko eskatu ziotenean, gogor bota zuen: hobeto, horrela ez dute txisturik egingo. Mutilen Bartzelonaren eta Athleticen Errege Kopako finalean gertatutakoa zuen buruan. Hori entzun bezain pronto jabetu nintzen ez zela arbitrorik gozoena izango.

Partida ere halakoa izan zen: markagailua gure kontra irauli zen hasieratik, Gure eta Erikaren jaurtiketa banak zutoinean jo zuten, azkenak 90. minutuan, eta bi jokalarik gutxiagorekin iritsi ginen luzapenera. Athleticen bederatzi jokalarik Espanyoleko hamaikakoaren kontra.

Bukatzear, penaltietarako prestatzen ari ginela, hutsuneez baliatuta aurreratu zen Espanyoleko jokalaria bat lehen zutoinean, eta baloia sareratzea lortu zuen kórner batean. Gola sartu zidan.

Ez dut sekula hainbeste negar egin. Iraia kapitaina negar batean ere ikusteak hunkitu ninduen, inork baino buru hotzagoa baitu halakoetan, baina Erreginaren Kopa modu horretan galtzeak bereziki mindu gintuen. Bihotzean iltzatuta daukagun arantza da Kopa.

Itzal hori dago gaurko partidán. Iaz Ligan eta Kopán txapeldunorde izatearen zama.

Nik sari berezi bat nahi dut aurten, gainera. Behar dut. Masterreko ikasketak eta Espainiako selekzioko eta Athleticeko entrenamenduak uztartzea oso nekeza izaten ari da. Laborategitik entrenamenduetara eta entrenamenduetatik ikasketa mahaira nabil etengabe, hegazkin eta bidaiak tarteko. Jasangaitz nagoela esaten didate lagunek, berezkoa dudán umorerik eta zirikatze gogorik gabe. Zinemara gonbidatu eta denbora libreá dutela leporatzen diet, errudunak balira bezala. Zentzugabea, badakit.

Athletic Ligako garaikurra altxatzen ikusi nahi dut, besterik ez. Non eta katedralean, gainera. San Mames Barria amaitzear, bertan jokatuko dugun azken norgehiagoka da gaurkoa.

Partidako bigarren zatia k aurrera egin ahala nabaritzen da nekea. Jokalarien aldaketek hauspotu dute jokoa, hainbeste, Kenti Robles Bartzelonako jokalaria sartu berriak kontraerasoan zapuztu dituela gure ametsak. Bigarren gola sartu du Bartzelonak.

Bada astia berdinketarako. Gol bat behar dugu.

Bartzelonaren jaurtiketa batek zutoinean nola jo duen ikusi dut begiaren ertzetik, sareratu gabe. Ia lehertu egin zait bihotza. Bi minutu eskasetara Nekane k erantzun du beste jaurtiketa batekin, baina ateko langan jo du. Azken hamabost minutuak eromena dira, baloiak ez du sareratu nahi. Urduriegi nago, gaude. Bartzelona defentsan gotortu da.

90. minutua. Amaitu da. Golik ez. Bigarreneg segidan txapeldunorde. Urteetan luzatuko den madarikazioa.

Aldakako hezurak ukitzen ditut hatzekin. Gero eta ageriagoan ditut, galtzen ari naizen pisuaren ondorioz. Jaten ahalegintzen naiz, baina etxean bakarrik nagoela ez zait mokadu bakar bat bera ere sartzen. Itxi egiten zait urdaila. Ohean ere ohi baino mantsoago pasatzen zait gaua, ezin ondo loak hartu.

Entrenatzaileak Atletico Madrilen kontrako partida jokatu gabe utzi ninduenetik nabil buruari bueltaka. Abenduan izan zen, 2013-2014ko Ligako hamaikagarren jardunaldian.

Espainiako selekzioarekin bi aste kanpoan eman ondoren itzuli nintzen Athleticekin Ligan jarraitzeko. Atletico Madril genuen hurrengo aurkaria. Partidaren bezperan, esku-ohetean fisioterapeutaren bat noiz libratu zain nengoela gerturatu zitzaidan Juanlu entrenatzailea. Alboan eseri eta hurrengo eguneko norgehiagokan aulkian egongo nintzela esan zidan. Ez zegoela arrazoi berezirik. Hil ala biziko partidaren bat izanez gero, ni nahi ninduela atezain. Baina Atletico Madrilen kontrako partidaren beste atezaina jarriko zuela.

Ordura arte titular izana nintzen, Athleticen eta Espainiako selekzioan. Geroztik, berriz, txandaka nabil Athleticetara atea defenditzen. Ez dut joko-maila okertu, edo ez didate halakorik esan, behintzat.

Are gehiago, inoiz baino gogorrago ari naiz entrenatzen. Ondo, gainera. Entrenamendu guztien aurretik joaten naiz orain Lezamako instalazioetara, doktoretza ikasketak eta gero. Nire kabuz bakarkako entrenamendu berezia egiten dut, nahi dudalako. Nire onenean egoteko. Prest egon behar dudalako. Bartzelona nagusitasun osoz ari baita jokatzeko Ligan, gu atzetik, hainbeste puntu batzeko ezinean gabiltzala. Eta laster ere izango da Emakumezkoen Munduko Futbol Txapelketa, 2015ean. Iaz Suediako Eurokopa bizitakoa bizi nahi dut osteratzen ere.

Ez da aski gogor entrenatzea, ordea. Prest egonda ere, entrenatzailearena da azken hitza. Bere ikuspuntu eta erabakien menpe daude nire helburuak lortzeko eman ahal izango ditudan pausuak. Eta arrotza zait egoera. Nire kabuz borrokatzera ohituta nago, ez besteen erabakien baitan, taldea helburua izanda ere.

Hertsidura sortzen dit egoeran gaineko kontrola galdu izanak.

Egoera aldatzeko zer egin dezakedan pentsatzen pasatzen dut eguna, zer hobetu ez dakidala, jokaldiak errepasatzen. Gorputza jaten ari zait sabeleko har hau.

Baloia ozta-ozta geratu dut hatzekin. Falta batean gora jaurti du Realeko jokalaria, baina baloia ateratzeko gai izan naiz. Bularraldea estutzen sumatu dut bat-batean, arnasa erabat estutu arte. Zubietan nago, Realaren kontrako itzuliko derbian, gaur titular moduan jokutzen. Geldialdia egin bezain pronto hasi naiz arnasik gabe geratzen. Gero eta estuago. Atean nago, geldirik, ingurua nola mugitzen den antzematen. Burua beste nonbait dut, itolarriak izoztuta.

Segundu gutxi batzuk izan dira, niretzako inoiz baino luzeagoak. Apurka berreskuratu dut arnasa, eta gihar tenkatuak lasaitzen doaz. Jokora itzultzen hasi naiz.

Orkatz Martin atezainen entrenatzailearen hitzak etorri zaizkit kolpean. Orain egun batzuk aitortu zidan Jone atezaina atearen goiko aldetik ni baino hobeto zebilela, eta jokatzeko aukera eskaini nahi izan diotela. Gaztea denez, garrantzitsua dela hori. Horregatik jartzen dute tarteka titular.

Buruari buelta gehiegi eman ondoren jaso dudan azalpen bakarra izan da.

Juanlu entrenatzailearekin eta prestatzaileekin ere elkartunintzen orainasteparebat. Entrenamenduetan zakar erantzuten hasi nintzenez, nire egoeraren berri ematea erabaki nuen. Lezamako harmailetak

bazter batean batuta, argi hitz egin nien: kanpoko laguntzarekin antsietateari aurre egiteko lanean ari nintzela adierazi nien, fisikoki nahi zutena eskatu zezaketela, baina ohiko Ainhoa umoretsu eta zirikatzailea ez zutela denbora batez ikusiko.

Gerora jakin dut nire egoera oso ohikoa dela futbolari profesionalen artean. Ohikoegia.

Bere mamuak sortzen ditu antsietateak, ordea. Baloi bat gora joatea aski da horietako baten hatzaparrak bularraldean sumatzeko. Eta atezainak sekulako amildegia du atearen atzean. Golaren azken erantzulea da.

Nire onera etorrita, atea ondo defenditzen ari naiz, eta, partida bukatzeko sei minuturen faltan, garaipena eman digun bigarren gola sartu du Erikak. Bat eta bikoarekin itzuli gara Bilbora, derbia eskuratuta.

Hurrengo egunean berebiziko esfortzua egin izan banu bezala jaiki naiz, gorputza txikituta.

Besoak ia zutoineraino luzatuta ere, barrura joan dira Bartzelonaren bost jaurtiketak. Ezin izan dut ezer ere egin penaltietan. Errepikatu da madarikazioa. Bartzelonak eskuratu ditu 2013-2014ko Liga eta Erreginareko Kopa. Athletic bietan txapeldunorde. Bigarren, berriro ere.

Sinesgaitza dirudi. Markagailua hutsean zela iritsi gara 90. minutura Ceutako Alfonso Murube zelaian, Erreginaren Kopako finalean. Luzapenaren laugarren minutuan sareratu du baloia Alexia jokalaria katalanak, eta berehala erantzun du Nekanek beste gol batekin. Markagailua bana zela bukatu da luzapena. Aurreneko Kopa eskuratzeko zorian ginen. Penaltietan dena jokoan.

Bartzelonako jokalarietako asko Espainiako selekziotik ezagutzen ditut, baina ezezagunak zaizkidanak aukeratu dituzte penaltietarako. Nire ahaleginak alferrikakoak izan dira, bostak barrura. Bartzelonako atezainak, aldiz, Irene Paredesen jaurtiketaren norabidea asmatu du. Gol bakarraren aldearekin irauli da euren alde markagailua, azken momentuan.

Etsituta joan gara denak aldagelara. Taldekideen aurpegi tristeek erakusten dute jaso dugun kolpearen neurria.

Autobuseko bidean malkotan nagoela gerturatu zait Nacho Quereda Espainiako selekzioko hautatzailea. Lasai egoteko esan dit, selekzioarekin ere ezin sailkatu ibili ondoren, begira aurten nola lortu dugun Munduko Futbol Txapelketarako sailkapena, dio. Athleticek ere lortuko du datorrenean. Zur eta lur geratu naiz. Espainiako selekzioko entrenatzailearekin dudan harremana ez da bereziki adeikorra, emakume jokalariekiko duen jarrera ez baita egokiena. Eta erdi malko erdi harridura aurpegi, zer esan ez dakidala agurtu dut.

Halako jarrera adeitsuarekin ikusiko dudan azken aldia da. Espainiar selekzioko jokalaria guztiek bere dimisioa eskatuko dugu laster.

Eskutik eskura elkarri baloia pasatzen ari dira bi gaztetxo. Decathlon kirol dendan futbolari eskainitako korridorean daude jolasean, nire departamentuan. Doktoretza utzi eta futbolarekin bateragarria den lan bat bilatzea erabaki dut, lasaitze aldera. Irabazten ditugun aparteko diru-sariek, gainera, ez dute klubeko jardun erdiko soldata orekatzen, eta futbol materiala saltzen nabil orain jardunaldi erdiz kirol denda honetan, goizeko txanda eginez gero entrenamenduetara joan naitekeelako

eta selekzioarekin aritzeko aukera ere eskaintzen didalako.

Nire antzera daude gainerako Athleticeko taldekideak. Ikasten ez dagoena lanean dago. Mediku gaiak, abokatuak, ingeniariak, gorputz heziketako irakasleak... Denetarik dugu taldean.

Baloiarekin jolasteari utz diezaioten eskatu diet gaztetxoei. Kasurik ez. Alboko korridorera joan da euretako bat, eta apalak gaindituz hasi dira baloia elkarri pasatzen. Erdian sartu eta baloia kendu behar izan diet. Hau ez da txiki park bat.

Beste bezero bat gerturatu zait. Semeari zein neurriko baloia komeni zaion jakin nahi du. Telebistan agertzen diren arauzko baloi horiek ez erosteko gomendatu diot, gaztetxoei lesioak eragin dizkietelako maiz, astunegiak eta handiegiak direlako. Lauko neurriko baloia nahikoa du. Eskerrak eman eta igeriketa ataleko nire lankidearengana joan dela ikusi dut. Mutila da bera. Ea ze baloi erosi beharko lukeen galdetu dio. Denda osoan dagoen lehen mailako futbolari bakarra ni naizela ohartarazi dio lankideak.

Kopetatik izerdia kentzen dut eskularruarekin. Maiatzean bero da Murtzian. Egun gutxi barru Kanadan jokatu da 2015ko Emakumezkoen Munduko Futbol Txapelketa, eta entrenatzeko elkartu gara bertan Espainiako selekzioko jokalaria.

Ez nator nire onenean, dena den. Urte hasieratik orkatilean daukadan ultzerak arazo dezente eman dizkit. Ohi baino gutxiago jokatu dut horregatik. Gainera, Athleticek denboraldi kaskarra egin du. Sailkapenean hirugarren geratu gara. Ea Joseba Agirre entrenatzaile berriarekin denboraldi hobea egin dezakegun hurrengo ikasturtean.

Hala ere, jokatzeko gose naiz, Kanadarako bereziki gogotsu. Espainiako selekzioak aurrenekoz lortu du munduko txapelketarako sailkapena, inoizko maila onenarekin. Prestaketak, aldiz, ez dira gure nahien eta beharren neurrikoak. Nacho Quereda entrenatzailearen lantaldea ez da lagunarteko partida bakar bat bera ere lotzeko gai. Gure artean jokatzeko ari gara, eta guk geuk egindako akatsei buruz ematen dizkigu ondoren azalpenak entrenatzaileak. Entzutekoak dira. Jokalaria ez gaude batere konforme prestaketarekin.

Gure artean inoiz baino batasun handiagoa sentitzen dugu, ordea. Murtziako bero sapa utzi eta Kanadara noiz joango zain gaude guztiok.

Eskularruak hoteleko gelako bazter batera bota ditut bortizki. Pare hori ez da poltsan sartuko. Torontotik etxera itzultzeko maleta prestatzen ari naiz, eta hainbestekoa da nire haserrea, azken partidako eskularruak baztertzea erabaki dudala. Beste bi norgehiagokakoak eramango ditut. Baina horiek, ezta pentsatu ere.

Jokatu dugun aurreneko partida Costa Ricako selekzioaren aurkakoa izan da. Gu ginen faboritoak, baina prestaketa faltagatik pott egin dugu bigarren zatian. Gol banarekin bukatu du markagailuak. Herren hasi dugu Mundiala, beraz. Derrigorrez irabazi behar genuen, hurrengo aurkaria Brasil zelako, nekez gainditzeko moduko lehiakidea. Eta hala izan da: bat eta huts irabazi digute brasildarrek. Maila ona erakutsi dugu, hala ere. Bi geldiketa zail egin ditut eta, estadioa beteta, gozatzeko moduko partida izan da. Hego Korearen aurkakoa, aldiz, ahazteko modukoa, mingarria. Bigarren zatian nagusitu zaizkigu korearrak, eta nire buruari kostata barkatuko diodan akatsa egin dut. Gehiegi aurreratu eta buruz sartu didate bigarren gola. Guk bakarra sareratu dugu.

Maila eskasa erakutsita, Mundialeko sailkapenetik kanpo geratu gara.

Maleta gainean eseri behar izan dut kremailera itxi

ahal izateko. Inoiz baino kamiseta, galtza, muda, baloi... gehiago ekarri ditut, nahi baino arinago bueltan eramateko.

Hoteleko gela bazter batean daude Hego Korearen aurkako partidako eskularruak. Hortxe geratuko dira.

Boligrafoa hatzekin indarrez zapaltzen dut paperaren kontra. Ea, ados jarri gaitzen, diot ahoz gora. Ordu gutxi barru hartuko dugu Torontotik Madrilerako hegazkina, baina aurretik hoteleko gela batean batzea erabaki dugu Espainiako selekzioko jokalaria, Nacho entrenatzailearen jokabidea onargaitza iruditu zaigulako.

Entrenatzaileari selekzioaren norabidearekin desados gaudela esatea hitzartu dugu, beteranoek nahiz gazteenek. Entrenamenduetako jarrera desegokiak gaurkoan alboratuko ditugula adostu dugu, eta Mundialerako prestaketa eskasari buruzko kexuak bakarrik azalduko dizkiogu. Horretarako, hotelean elkartu gara berarekin. Garbi azaldu diogu gure ikuspegia: 27 urteren ondoren, entrenatzaile berri bat behar du Espainiako selekzioak, maila hobetu nahi badu. Bere garaia agortu da.

Nachoren erantzunak asaldatu gaitu: orain 16 urte bera kanporatzen ahalegindu ziren selekzioko jokalaria batzuk, gogorarazi digu. Berak jarraitu du entrenatzaile, eta jokalaria horiek ez zuten gehiago jokatu.

Nachoren hitzei emango diogun erantzuna erabakitzekeo batu gara ostera ere hoteleko gela batean. Eztabaidan garela, egoera aldatu dela jabetu gara: aurreneko hedabideak guri begira daude. Inoiz baino jarraipen zabalagoa eskaini diote Emakumezkoen Munduko Futbol Txapelketari. Euskal Herriko egunkari ezagun bateko azalean ere azaldu gara Espainiako selekzioan jokatzen dugun Athleticeko lau futbolariak. Eta baliatuko dugu indar hori.

Nachori ahoz azaldutakoak ekarri ditugu paperera, hedabideei ohar bidez helarazteko. Datorrenaz gehiegi jabetu gabe.

Mikrofonoak eusten dituzten hamaika esku, beso eta kablek inguratzen naute. Fokoek itsutu, kamerek grabatu. Nik zer esango zain daude kazetariak, nire parean belauniko batzuk, besoa ezin luzatu bazterretik besteak. Orain minutu gutxi hartu dugu lur Madrilgo aireportuan, eta lehen kontrol-langak gainditu bezain laster gerturatu zaizkigu, bidalitako oharrari buruz zer dugun esateko galdezka.

Ez genuen halakorik espero. Zer da hau!

Toronton bertan izan du Nacho entrenatzaileak oharraren berri. Hegazkinaren zain geundela hasi dira kazetariak telefonora hoska, eta federazioko arduradunek sekulakoak eta bi esan dizkigute. Halako iskanbila ikusita, mugikorrekin grabatzen ibili dira alboan zain genituen bidaiariak. Gu isil-isilik.

Orain ez dakit nola erantzun kazetariei. Eskutik heldu dit jokalarietako batek, lasaitzeko, eta oharrean adierazitakoa errepikatu dut: Espainiako selekzioak aldaketa bat behar du, Queredaren etapa amaitu da.

Hatza busti eta aldizkariaren orrialdea pasa dudanean topatu dut parez pare. Ille-apaindegian nago, noiz ilea moztuko. Halakoetan botatzen diet begirada bat txutxumutxuz betetako aldizkarietara, orrialdeak agudo pasaz. Nacho entrenatzailearen argazkia ikusi dudanean, baina, seko geratu naiz. Matxistatzat jotzen dugula irakurri dut lerroburuan, kolore biziz azpimarratuta.

Honek bai gairak dituela nire aurreikuspen guztiak.

Medioetatik urruntzeko gomendioa luzatu digute Athleticetik eta, ulertu arren, damu naiz nire selekzio taldekideei ezin lagundu izateaz. Telebistan ikusten ditut galdera zuzen eta kirolez gairak erantzuten. Ernegatzen hasiak baikara Espainiako Futbol Federazioarekin. Bere horretan jarraitzen du, gure eskarien aurrean entzungor.

Hilabete luze beharko du Nacho Querada entrenatzaileak dimisioa aurkezteko. Inolako azalpenik eman gabe egingo du alde. Ni ez naute berriro selekzioarako deituko.

Eskekin lema sendo helduta, Getxoko labarretarantz noa itsasontzian. Haurtzaroan familiarekin Getarian pasatako udek piztu zidaten itsasoarekiko zaletasuna, eta itsasontzi txikietarako gidabaimena atera nuen iaz, oraindik doktoretzarekin borrokan ari nintzela. Itsasontzi zuri txiki bat dut geroztik Santurtziko portuan, nire buruari atseden eman nahi diodanean hartu eta itsasoratzeko.

Bikotearekin izan dudana haserrealdia dut buruan bueltara. Ea Ligan Bartzelona gailenduko zaigun galdetu dit behin eta berriz. Etxean futbola alde batera utzi nahi dudala errepikatu diot, beste behin ere, baina entzungorrena egin dit, haserretu naizen arte. Kirolzalea da bera, ni kirolaria. Eta bada alde. Futbola nire lana delako, ez zaletasun hutsa, eta garuneko futbolaren atala itzali nahi izaten dudalako etxean nagoenean, lagunekin, berarekin; atseden hartzen saiatzen naizenetan.

Are gehiago aurtengo moduko denboraldietan. Ligako sailkapenean puntu gutxi batzuetara dugu Bartzelona, 2015-2016ko denboraldia amaitzear gairela. Buru egin dugu orain arte, baina berriro ere gure madarikazioa errepikatzeko bidean gaude. Azken momentuan jokatu beharko dugu lehen postua, norekin eta Bartzelonarekin.

Azalduta ere, berean jarraitzen du bikotekideak. Eta nik ez dut haserretzeko inolako gogorik.

Urteetan lehenengo aldiz astebururen bat edo beste izaten dut libre. Espainiako selekzioan entrenatzailea aldatu zenetik ez nautelako berriro deitu, eta aisirako denbora izatearen sentsazio berezi bezain arraro honetaz gozatu nahi dut. Bikotekidearekin lasai egon. Lagunekin geratu. Ez da erraza, baina.

Mendebaldetik hodeitza gerturatzen ari dela dirudi. Hobeto porturatzea.

Azazkalak jaten ari dira taldekideetako batzuk. Niri ere emango dit zer edo zerk partidak horrela jarraitzen badu. Athleticeko neska guztiak elkarrekin gaude Lezamako jantokian, Joseba entrenatzailearekin eta telebistari so.

2015-2016ko Ligako azken aurreko partida ari da jokatzeko Bartzelona Atletico Madrilen aurka. Talde katalanak gaur irabazten badu dena jokatu beharko dugu guk hurrengo asteburuan, Teneriferen aurkako azken jardunaldiko partidari. Puntutan ia berdinduta izango baikara katalanekin. Bartzelonak gaur galduz gero, aldiz, Athleticena izango da Liga.

Bartzelona ezinean egongo zela amestu nuen pasa den egunean. Taldekideek barre egin zidaten amestutakoa kontatzerakoan. Nola galduko du Bartzelonak. Joseba entrenatzaileak ere talde katalanaren garaipena ia ziurtzat jo zuen kazetarien aurrean. Amestutakoak amestuta, baina, Bartzelona eta Atletico Madrilen norgehiagoka elkarrekin ikustea proposatu nien, badaezpada. Ez nintzen bakarria halako sentsazioarekin.

Inork gutxi espero zezakeen moduan, Atletico Madril aurreratu zaio Bartzelonari huts eta batekoarekin. Telebistari lotuta, dantza batean gaude Lezaman.

Minutuak aurrera doaz eta markagailuak bere horretan jarraitzen du. Bartzelonak ez du baloirik sareratzea lortzen. Atletico Madrilek zelaian gotortuta jarraitzen du. Eta horrela segiz gero, lau puntuko aldearekin, Liga Bilbora dator zuzen-zuzenean.

Arbitroak erlojura begiratu eta txilibitua ahoratzen ari zela ikusi bezain pronto hasi gara imintzioka, hiru txistuak estaltzeko moduko garrasi eta kantuekin.

Athleticen bere bosgarren Liga eskuratu berri du.

Aldagelako kamisetak jantzita atera gara festa giro betean Lezamako aparkalekura. Ez dago inor, baina

bi botila xanpain atera ditu Iraiak autotik. Bihozkadak jota, etxetik irten aurretik sartu ditu maleteroan. Aparkalekuan bertan hasi ditugu ospakizunak, kantuan nahiz saltoka, xanpainez bustita.

Laster gerturatu dira kazetariak igandeko arropa eroso z jantzita, bederatzi urte luze kosta zaigun txapeldunen argazki bila.

A hozapi zuriak airean mugitzen dituzte taldekideek, Liga hemen da oihuka. Lezamako prentsa aretoan gaude. Iraia, Joseba eta hirurok erantzungo ditugu kazetarien galderak mahaiaren bestaldetik. Gainontzeko taldekideak parean ditugu, kazetarien artean.

Gure ospakizun gogo hainbestekoa da ez diegula kazetariei galderetarako tarte handiegirik eskaintzen. Erantzun bat eman eta kantuan, ahozapiak astintzen hasten dira taldekideak. Mahaia eskuekin kolpatzen laguntzen diet nik. Atzealdean daude zuzendaritzako kideak, Liga ezustean irabazi dugula jakinda, harrapaladan etorrira.

Aparkalekuko lehen ospakizunetatik kalejiran joan

gara Lezama herrira, txakolin eguna zenaren aitzakian Liga jendartean ospatzera. Elkarrekin bazkaldu dugu gero; bazkaldu, edo. Eta prentsaurrekoa eskaini behar genuela erabaki dute zuzendaritzakoek.

Talde lana goraipatu du Iraiak kazetarien aurrean. Badira gu baino hobeak diren banakako jokalaria, dio kapitainak, baina elkarrekin aritzeak eta sufritzeak eman digu garaipena. Joseba, ados. Hainbeste minutu jokatu ez duten jokalarien lana eskertuz, taldearen emana eta meritua goretsi ditu. Nik ere berretsi ditut euren hitzak, eta urte hauetan guztietan bigarren eta hirugarren geratzearen minak gogoratu nahi izan ditut, hala eta guztiz ere, merezi izan duela esanez amaitzeko.

Orain, goazen ospatzera.

Teneriferen kontra jokatu beharko dugu datorren asteburuandenboraldikoazken Ligako norgehiagoka. 25 garaipenekin eta hiru berdinketekin, baina, Athleticena da jada Liga. Hemen da.

Kopeta eskuarekin hazkatzen dut buruko karga arintzeko. Goizeko laurak aldera etxeratu nintzen bart Kafe Antzokian egindako parrandaren ostean. Gaur ezinezkoa da ajerik ez izatea. Beti bezala jaiki behar izan dut lanera etortzeko, ordea. Eta kostata nabil orain arropak apalategian txukuntzen.

Zoriontzeko gerturatzan zaizkit dendako lankideak, aspaldidanik merezitakoa lortu dugula errepikatzen didate, eta ea zergatik ez dudan jai hartu. Nola ba, Bartzelonaren porrotak amets hutsa zirudien.

Futbol botak, kamisetak nahiz galtzak bere lekuan jartzen ditudan bitartean jarraituko dut garaipenaz gozatzen, burukominak burukomin.

Txaloka eta saltoka den olatu zuri-gorri bat da. Oteizaren eskulturak buia bat dirudi. Milaka herritar gerturatu dira udaletxeko plazara gurekin Ligako garaipena ospatzera. Eguzkitan 30 gradu daudela dio biribilguneko termometroak, baina hor daude aspalditik, gure zain. Ikaragarria da.

Bandera zuri-gorri bat dago udaletxeko eraikinean, alderik alde, erdian Txapeldunak leloarekin, eta

bazterretako kanoiek konfeti zuri-gorriak aireratzen dituzte. Ahotsa urratu arte ari gara balkoitik kantatzen, zaleekin ospatzen. Mikrofonoa hartu eta sailkapeneko bigarren postuari agur esatera etorri garela abestu dut, zaleek lagunduta. Bat-batean balkoiaren barandara igo da Iraia. Ozta-ozta heldu dio gerritik Athleticeko ordezkari batek. Bertatik eskertu nahi izan du jarraitzaileen babesak.

Inoiz baino herritar gehiago elkartu dira. 10.000 lagun, udaletxearen arabera. Ez genuen uste hainbesteko jendetza elkartzeko gai izanen ginenik, are gutxiago aste barruko egun buruzuri batean. Hunkigarria da.

Sabairik gabeko autobusean igo gara Ibaiganetik Begoñako baselizara lehenengo, mutilek Superkopako ospakizunetan egindakoari segika. Athleticen banderatzarra zegoen ipinita eliz atarian, normalean baino jende gehiagok inguratuta. Udaletxe inguruan beste hainbeste egongo zirela errepikatu diogu elkarri, baina ezin genuen imaginatu hainbeste izango zirenik.

Udaletxeko eskaileretan Juan Mari Aburto alkatea zela egin digute harrera zaleek. Euforia moduko batean atera ditugu argazkiak, txaloka agurtu ditugu.

Une batez, dendako lankideak ikusi ditut hesiaren bestaldean, hau zuretzat da moduko zer edo zer

keinuka. Gerturatzean zorion hitzez betetako baloi bat jaurti didate. Ilusio berezia egin dit. Besapean edukiko dut ospakizunak amaitu bitartean.

Ordu erdi inguru iraun du udaletxeko arabiar aretoko ekitaldiak. Erakundeetako ordezkarien hitzak nahasi dira zaleen kanpoko erreklamu txistuekin, eta gabarra non dagoen zioten kantuak ere sartu dira leihotik. Eztabaida piztu baita: emakumeok gabarra ere merezi genuela dioten ahotsak biderkatu dira azken egunotan.

Iritsi gara balkoira, azkenerako. Zaleen olatu zuri-gorria dugu parean. Milaka jarraitzaile daude kantuka, saltoka, txaloka. Deustuko trainerua Ibaizabalen dagoela konturatu naiz. Jende guzti hau gugatik etorri da, gurekin ospatzera. Bihotzean zimiko bat sumatzen duzu halakoetan.

Ez dago hainbesteko berotasuna behar bezala eskertzerik.

Eskularru berri batzuk hartu ditu bezeroak apalategitik. Dendan nago lanean. Alabarentzako direla azaldu dit, ea sinatuko dizkiodan. Futbolean aritzen da alaba eta nik sinatuta badaude, gustukoak izango dituela. Aurrena ordaindu ditzala eskatu diot, boligrafo egoki bat topatuko dudala bitartean.

Eskularruekin eta sinadurarekin poz-pozik alde egin du bezeroak.

Plaza zelai bihurtuta, futbolean jolasten irudikatu dut bezeroaren alaba, kaleko banku azpiko zirrikitua eskularru eder batzuekin defenditzen. Guk Barañainen egiten genuen bezala.

Besoak gora, saltoka ospatu dut Maite Orozen gola. Zazpi minutu falta dira Fortuna talde daniarraren aurkako partida amaitzeko. 2016-2017ko Europako Txapelddenen Ligako hamaseirenetako joanekoa irabaztear gaude.

Aurrenekoz gaude San Mames Barrian, ia 10.000 zaleren aurrean jokatzen. Estadio zaharrak bazuen aparteko xarma, baina berriak ere badu berea. Ederra

da eta giro aparta dago. Tunel gorritik zelairatu garenetik nabaritu dugu hori, Europako Txapeldunen Ligako partiden aparteko garrantzia.

Errezelo apur bat sortzen du beti San Mamesen jokatzek, hala ere. Hain estadio handietan aritzeko ohiturarik ez dugunez, gure jokoaren kalterako ote den beldur izaten dira zenbait jokalarik. Niri ere sortzen zait antzeko kezka, inori ez zaigulako ahaztu Bartzelonaren aurkako San Mames zaharreko porrota. Itzal luzea du partida hark. Baina, San Mames zabaltzea beti da garrantzitsua guretzat. Athleticek emakumezkoen taldeak ere behar du bere katedrala.

Presioak presio, gozatzeko eskatu diet horregatik taldekideei, eta hala izaten ari da.

Bigarren zatian lesio asko izan arren, talde daniarraren erasoari eusteko moduan izan gara. Markagailuak bana berdinduta jarraitu du Orozeren golak desorekatu duen arte. Bi eta batekoarekin aurreratu gara partida amaitzeko zazpi minuturen faltan.

Erlojuak aurrera egin eta 90 minutuak agortu direnean hartu dut benetan arnasa. Sartu diguten golak balio handia du itzuliko partidura begira. Lan bikoitza egin beharko dugu euren zelaian. Baina lehen garaipena gurea da, behintzat. Estadio

zaharreko mamuak uxatuta, gozamena izan da San Mames Barrian jokatzek.

Eskularruak atera ditut garbigailutik ilunpetan dudak gelatxoan zintzilikatzeko. Jasangaitza zait eskularruen izerdi usaina, eta etxera eramaten ditut garbitzeko. On ere egiten die, neurrian garbituz gero, ur hotzetan eta eguzkitik salbu badaude. Kimikari batek frogatu asko egiten ditu. Besokoa atera dut garbigailuaren danborretik, azkenik. Ikurrina eta Athleticek ezkutua ditu, eta nire besora egokituta dago, nik neuk josita.

2017-2018ko denboraldirako lehen kanpitaina izendatu nau taldeak, Iraiaren ordezk.

Aldaketa asko izan ditugu taldean iazko denboraldi eskasaren ondorioz. Fortunari lehen partida irabazita ere Europako Txapeldunen Ligatik kanpo geratu ginen segidan, eta aurreneko hilabete eta erdiko joan-etorriek lesio asko eragin zizkiguten. Gehiegi. Nabarmen kaltetu gintuen horrek Ligan. Txapeldun izatetik bosgarren izatera pasa ginen. Egoera ikusita, erretiratzea erabaki zuten taldeko hiru betetanok: Iraia Iturregik, Irune Muruak eta Eli Ibarrak. Gehie-

gizko esfortzua zen. A ze negar saioa egin genuen denok prentsa aretoan, agur ofizialean.

Taldeak aurrera egin behar du, ordea, eta lehen kapitain izendatu nau aldagelak, Erika Vazquez eta biok garelako orain beteranoenak. Izugarritzko ohorea da niretzat, taldekideek eurek izendatu nautelako kapitain. Baina erantzunkizuna ere bada. Nekez ordezkatu dezake inork Iraiaren neurriko kapitaina.

Iazko denboraldia ez zen nire onena izan, gainera. Jokoa apur bat okertu nuen denboraldi erdialdean.

‘Nire onena ateraratzeko’, tarte batez aulkian eduki ninduen entrenatzaileak. Partida gutxi batzuk izan ziren, baina nahikoak garai bateko mamuak gerturatzen sumatzeko. Oraingoan ez nengoen esku-hutsik, ordea. Maila hobetu nezakeela ikusten nuen nik neuk, arrazoia zuela entrenatzaileak, eta egoera erlatibizatzen lagundu zidan psikologoak, bikotekidearen eta gertuko laguntzarekin.

Handik gutxira atezain nagusi izan nintzen berriro. Titular gisa daramat geroztik Athleticen atea defendatzen, kapitain naizela.

Eskularruak ondo lerrokatuta, pintza gorri batekin zintzilikatu dut besokoa. Handik gutxira partida bakoitzerako propio jositako besokoak emango

dizkigute, aldiro bat. Oraingoz, baina, mimo handiz zaintzen dut nirea, bakarra baita.

Esku-zartak bizkarrean, agur besarkadak eta hitz gozoak eskaini dizkidate lankideek nire azken lan egunean. 2018ko urtarrila da, eta eszedentzia bat hartuko dut futbolari profesionalizatu gisa jarduteko.

Goi mailako futboleko 23 urtez aritu ondoren, lehen aldiz sinatu dut Athleticekin jardunaldi osoko kontratua. Benetako futbolaria naizela sentiarazi dit sinadurak.

Aurrerantzean ez naiz entrenatzera neka-neka egin da joango dendan pasatako lanorduen erruz. Ez dut ikasketetarako ahalegin bikoitza egin beharko, atsedeen tarteen kaltetan. Eta ez dut futbola ez den beste ardurarik hartu beharko soldata bermatzeko.

Aurrerantzean nire zeregin nagusia nire eta taldearen jokoa hobetzea izango da. 23 urteren ondoren.

Dendako lankideak agurtu ditut, eta uste baino gehiagotan azalduko naizela mehatxatu ditut. Nik ere sumatuko dut euren falta.

Eskuarekin gaitzespen keinua egin diot ahizpari hegazkineko pilotuak Madeirako Cristiano Ronaldo Nazioarteko Aireportuan laster lur hartuko dugula ohartarizi duenean. Maitane irribarrez da, jokalaria hori bereziki maite ez dudala jakitun.

2017-2018ko denboraldia bukatuta, oporretan elkarrekin joatea erabaki dugu. Bikotekidearekin nuen harremana eten nuen orain ia urte erdi, eta Madeirara elkarrekin bidaian joatea ezin egokiagoa iruditu zaigu buruari arnas pixka bat emateko.

Goibel egon bainaiz azken hilabetetotan. Zelaian ez. Maila txukuna erakutsi dut, halakoetan futbola babeslekua ere badelako. Eta taldeak ere maila ona erakutsi du denboraldian zehar. Jokalari aldaketa ugari izan arren, hirugarren geratu gara Ligako sailkapenean.

Badira ahaztuko ez ditudan denboraldiko bi une, hala ere.

Inoizko gol kopururik handiena jaso nuen Ligako laugarren jardunaldian: sei eta hutsekoarekin hartu gintuen menpean Atletico Madrilek. Lehen zatian ondo jokatu nuen. Bigarren zatian, ordea, baloi baten botea gaizki kalkulatu eta gainetik pasa zitzaidan. Akats larria. Taldea desagertu egin zen hortik

aurrera. Markagailuak gora eta gora egin zuen Atletico Madrilen alde. Aspaldi ez bezala, partida bukatu bezain laster ezkutatu nintzen bazter batean, bakarrik, akatsak errepasatu eta negar lasai egiteko.

Negar franko egin nuen Erreginaren Kopako finalerdian ere. Berriro ere aurkari Bartzelona, eta berriro ere penaltietan galdu, gol bakarreko aldearekin. Kopako madarikazioa.

Une gozoagoak etorriko dira laster, dena den: zalegoaren aparteko babesa, jokaldi gogoangarriak, jendez betetako zelaia.

Orain, baina, Madeiran lur hartu berri dugu ahizpak eta biok, buruari atsedean eman eta dibertitzeko. Etorriko denaz pentsatzeko asmo eta gogorik gabe.

Maletaren bila goazela ikusi dugu aireportuan Cristiano Ronaldoren eskultura. Keinua errepikatu dut.

Hatzarekin papertxo bat atera dut galtzerdiaren tolesduratik. Penalti puntuan dago Betiseko jokalaria, arbitroaren baimenaren zain. Esku-ahurrean paratu dut papertxoa, zuri egonagatik ere irakurtzen ariko banintz bezala, eta berriro zimurtuta gorde dut galtzerdiaren tolesduran. Nire mugimendu guztiak jarraitu ditu jokalaria. Prest nago bere jaurtiketari erantzuteko.

2018ko azaroa da. Atearen erdian nago, geldi. Penaltiek erabakiko dute Athletic edo Betis pasako den Erreginaren Kopako final laurdenetara.

Garaipena behar dugu. Apenas lortu dugu punturik Ligako azken zortzi jardunaldietan, eta Erreginaren Kopan aurrera egiteak hauspotuko luke taldea. Gaur doi-doi iritsi gara penaltietara, ordea. Eromena izaten ari da partida.

Lehiari ekin eta ordu erdira sareratu du baloia Priscila Betiseko jokalaria. Zazpi minutu eskas behar izan ditu bigarrena sartzeko, bereziki min eman didan moduan: baselina batekin gainditu nau arean bertan. Eta bera ere izan da protagonista bigarren zatian, hirugarrenarekin.

Gure aurka hiru gol genituela, ezinezkoa zirudiena gertatu da handik gutxira. Ainhoak bi gol sareratu ditu hiru minutuko tartearekin, eta Garazik gure

aldeko penaltiarekin orekatu du markagailua. Hiruna.

Zelaiko minutuak agortuta, penaltietarako prest nago, denboraldi hasieran izandako hankako lesio txikiaren arrastorik gabe. Papertxoaren taktika psikologikoa erabiltzea pentsatu dugu entrenatzaileak eta biok, eta badirudi eragina duela: hiru jaurtiketa geratzeko gai izan naiz.

Behera bota didate jaurtiekta horietako bat, zaila, baina nire burua alde naturalera botata kanporatu dut. Erdi-altueran etorri zait bestea, eta asmatu dut eskua egoki jartzen. Azkena gora joango zela garbi nuen, Betiseko Van Dongen jokalaria holandarrak indarrez jaurtiko zuelako. Hala izan da.

Azken penaltia gelditu bezain azkar etorri zaizkit gainera taldekideak. Azpian hartu naute oraindik egindakoaz jabetzeko gai ez naizela. Garaipena gurea da, ohiukatzen dut nik. Hiru penalti gelditu dituzu, eurek garrasi. Pixkanaka konturatzen hasi naiz egindakoaz.

Aurrenekoz geratu ditut hiru jaurtiketa penalti erronda bakarrean. Arrazoiak dute, niri ere txundigarria iruditzen zait.

Suhiltzaileen kaskoan ahal bezala sartu dut eskuekin ile-mototsa, eta, Lali garbitzaileari baimena eskatuta, aldagelako uraren tutuarekin atera naiz zelaira. Nire taldekideek beste hainbeste egin dute. Mozorrotzeko etxean zuten lau gauza hartuta etorri dira Lezamara. 2018ko urtezahar eguna da.

Urteari agur esateko mozorrotzeko ohitura dago Iruñean, eta azken egunean ere entrenamendua jarri digutela ikusita, gu geu ere mozorrotzea proposatu du Erikak. Ez nuen zalantzarik aho batez baietz esango zutela taldekideek.

Kopeta zimurtuta, begira-begira geratu zaigu Joseba entrenatzailea aldagelatik zelairatu garenean. Ni suhiltzailez, besteak igerilariz, pirataz, rap abeslariz, txakurrez... Ez gaitu berehalakoan ezagutu. Normala, inork gutxik espero baitu bere jokalariai piura horiekin entrenatzera azaltzea. Laster batean konturatu da gu ginela, baina. Normala, inork gutxik egiten baitu hainbeste barre eta zarata Lezamako instalazioetan.

Baloia eskuekin zenbaitetan biratuz kokatu dut arean, eta sakea egiteko burua igo dudanean ikusi dut San Mames izarrez beteta. Argi-fokoak jokora zuzenduta daudenez, ilunpean ikusten dira harmailak atetik, eta milaka izar dirudite zaleek piztutako mugikorren argiek. Aparteko beste keinu bat gaurko norgehiagoka berezian.

Ikaragarria izaten ari da. Inoiz baino jarraitzaile gehiago elkartu ditugu San Mamesen. 48.000 baino gehiago direla esango dute biharko egunkariek, momentuko Europako emakumezkoen arteko partidarik jendetsuena. Katedrala lehertzeaz dago. Haur asko daude horien artean.

Aletico Madrilen aurka ari gara Erreginaren Kopako final laurdena jokatzeko. 2019ko urtarrilaren 30a da, arratsaldea. Aparteko xarma dute Kopako partidek, norgehiagoka bakarrean jokatzeko delako sailkapena. Horregatik aukeratu du zuzendaritzak data hau, San Mamesen guk ere jokatu dezagun. Jarraitzaileak gerturatzeko ahalegin berezia egin du Athleticek, baina aurreikuspen guztiak gainditu dituzte zaleek. Inoiz baino gehiago babestu gaituzte, hala kopuruz nola jarreraz.

Zelairatzeko tuneletik atera naizenean jabetu naiz gertakizunaren neurriaz. Orroka dagoen lehoi handi baten irudia dugu parez pare, bandera zuri-gorriak

nonahi daude harmailak zeharkatzen, eta koloretako papertxoak botatzeko prest daude jaurtigailuak. Udako euri-jasa baten moduan jausi zaigu gainera zalegoaren txalo zaparrada.

Hain urduri jarri naiz, partidaro egiten dudan hori mekanikoki errepikatzen saiatu naizela, harmailetara gehiegi begiratu gabe: zelaiaren erdian lerrokatu, arbitroari eta aurkariaren kapitainari eskua eman eta zalegoa agurtu. Ezinezkoa da, baina. Urduri bezain hunkituta nago harmailetan ikusten dudan giroarekin.

Bizi hasi da norgehiagoka. Gol bat baliogabetu digu arbitroak jokatzeko hasi bezain pronto. Aukera gehiago etorri dira ondoren, baina baloia ezin sareratu jarraitu dugu. Lehen zatia amaitzear zegoenean, ordea, Atletico Madril aurreratu da markagailuan Angela Sosa jokalaria jaurtiketa zeharkatu batekin. Zutoinean jo eta barrura joan da.

Bigarren zatian Atletico Madril ahulduko zelakoan ginen, jokalaria bati txartel gorria atera diolako epaileak. Alderantziz. Lehiari eutsi dio talde madrildarrak. Hainbeste, partida amaitzear geundenean bigarren gola sartu digutela.

Golbat sikieramerezi du zalegoak, diot nire golkorako, 2015eko Errege Kopako Gaizka Toqueroren golaren

modukoa. Ezinezkoa, baina. Amaitutzat eman du partida arbitroak. Markagailua Atletico Madril alde, huts eta bikoarekin.

Negarrari ezin eutsi egonagatik ere, bizi izandakoa errepikaezina dela garbi dugu jokalaria. Estadio oso bat emakume futbolarien partida bati begira izan da gaur. Guri begira. Athleticeko zalegoa bezalakorik ez dago. Gaurko garaipena beraia da.

Zelaiaren erdialdean elkartu eta txaloka eskertu dugu jarraitzaileen aparteko berotasuna.

Estadioari buelta ematen ari garela, eskularruak emateko eskatzen duen pankarta txiki bat ikusi dut harmailetatik zintzilik. Haur bat dago atzean nire izena oihuka. Ezin naiz gehiegi gerturatu, baina belkroak askatu eta airean jaurti dizkiot eskularruak.

Harrapatu dituelakoan nago.

Eskuekin lehortzen ditut masaileko malkoak. Aldagelan nago, Erreginaren Kopako emaitza ezin liseritu. Joseba Agirre entrenatzaileak tentuz begiratzen nau, gisa honetan negarrez ikusten nauen lehen aldia baita.

Pozik nago bizi izandakoarekin, 48.000 zaleen jarrerarekin, Athleticen nesken taldea hazten ikustearekin. Baina tristurak ere estutzen dit barrua. Kopak ihes egin digu, beste behin. Sinistuta nengoen oraingoan aurrera egingo genuela.

Ez baititut Kopa irabazteko hainbeste aukera izango. Jada ez naiz hain gaztea. Hogeita hamabost urte beteko ditut hiru hilabete barru, eta gero eta minutu gutxiago geratzen zaizkit zelaigunean.

Kirolari bizitza agortzen ari zait.

Gorputzak ere bere mugak ditu. Ez du garai batean bezain sendo erantzuten, lesioak pilatzen doaz belaunetan, eskumuturrean, orkatiletan. Erretiroa gerturatzen sumatu ahala ere tiraka hasten da egunerokoa. Zer egin gero, nola, noiz. Lana, ikasketak, amatasuna. Gerorakoak zirenak oraingokoak bihurtzen hasi zaizkit.

Futbolaria naiz, baina. Lehiakorra ezinbestean. Hainbeste, Kopa lortu arte ez dudala arantzatzkoa

kenduko. Lagunak taldearekin galtzen genueneko negar malko berberak ditut gaur masailetan. Hori ez da aldatzen.

Sukaldeko trapuarekin lehortu ditut eskuak mugikorreko abisua begiratzeko. Etxean nago, otordua prestatzen. Hatzarekin klikatu dut oharraren gainean, eta eskuak erakusten dizkidaten bi haur irribarretsu azaldu zaizkit pantailan. Eskularru handi bana dute jantzita; batak eskuineko eskuan, besteak ezkerrekoan. Alde handia dago euren esku biluzien eta eskularruaren tamainaren artean, baina gutxi axola zaiela dirudi.

Erreginaren Kopako final laurdenean pankartaren atzean zegoen haurra da horietako bat. Alboan du laguna, bera ere San Mamesen izana, elkarrekin. Zelaitik halamoduz jaurti nizkien eskularruak dituzte jantzita, eta eskerrak emateko bidali didate irudia.

Lidia entrenatzaileak oparitutako eskularruekin gogoratu naiz, zein berezi sentiarazi ninduten neurriz kanpoko eskularru horiek. Telebistako gizon atezainen pare ikusten nuen nire burua janzten nituenero. Benetako futbolari baten gisan.

Nire eskuen forma dute haur horiei oparitan emandako eskularruek, aldiz. Emakume atezain baten eskuen.

Sensi, eman eskua' esanez, protokoloa betetzeko eskatu dit Ruth García Levanteko jokalaria. Arbitroa agurtuta, aurkariaren kapitainari eskua eman behar niola ahaztu zait San Mameseko palkora begira hasi naizelako, eta Espainiar selekziotik ezagutzen dudanez, berak gogorarazi dit. Eskerrak.

Ligako 26. jardunaldia Levanteren aurka jokatzear gaude. Erreginaren Kopako partidu jendetsuaren ostean itzuli gara aurrenekoz San Mamesera, katedrala berriro zabaltzeko. Zaleek ez digute huts egin: 24.000 jarraitzaile elkartu dira oraingoan. Giro aparta dute.

Hitzordu berezia da niretzat, gainera. San Mameseko palkoan daude nire gurasoak, ahizpa, ahizpatzat dudan lehengusina eta bere semea, Gorka txikia.

Urteak dira azkenengoz ni jokatzeko ikustera etorri zirenetik. Lezamako harmailetan oso gaizki pasatzen

zuten, bereziki gurasoek: alabaren kontrako astakeriak bertatik bertara entzutea gogorra da, eta emaitzak etxetik jarraituko zituztela erabaki genuen. San Mamesera etortzeko aukera zegoela aipatu nienean, ordea, ez zuten zalantzarik egin. Gorbata eta guzti etorri da aita, nik hala gomendatuta.

Aterantz noala, amaren begirada bilatzen dut palkoan, ezin gonbidatuak ondo bereizi. Ziur naiz gaurkoa berezia zaiola. Futbolean aritzeko egin dudana esfortzuaz harro dago, bere burua nigan ere ikusten baitu. Besteen alde luze borrokatutako abokatua da ama, emakumeon berdintasunagatik beste hainbeste egindakoa. Eta seguru nago ni halako zelai batean ikusteak hunkituko duela.

Partida hasita, berehala etorri da zelaiko lehen ospakizuna. Laugarren minutuan Vanessa Gimbertek buruz sareratu du baloia. Nagusitasunez ari gara jokatzeko, zalegoa gozatzen ari da. Norgehiagoka amaitzeko 20 minuturen faltan etorri da bigarrena, Gimberten eskutik hori ere. Aukera batzuk izan ditu Levantek, zutoinera joan da euren jaurtiketetako bat, baina aurkako golik gabe bukatu dugu partida. Hiru puntuak etxeratuta, Ligako laugarren postua lotu dugu.

Zaleei Erreginaren Kopan eman ez genien ospakizuna emateko gai izan gara gaur.

San Mamesi bira emanez, txaloka eskertu dugu jarraitzaileen babesa. Athletic berezia da. Hori diote Levanteko jokalariek ere partida ondoren bidalitako esker mezuetan.

Laster familiarekin ospatuko dut garaipena, aspaldiko partez elkarrekin egingo dugun otorduarekin. Gorka txikia egoteak ilusio berezia egiten dit, gainera. Amonaren hutsunea ere sumatuko dut, ezinbestean. Ile kizkur eta gonarekin, bera ere harro egongo zen palkoan, seguru.

Nire eskuek zerikusi gutxi dute atezain etorri berriarenekin. Denboraldi-aurreko prestaketa lanetan gabiltza, etxetik kanpoko bost bat eguneko egonaldian. Elkarrekin entrenatzen dugu atezainok, elkarrekin sasoian jartzeko. Eta nabari da bere eta nire eskuen arteko hamar urteko aldea.

Ezkerretarantz okertutako hatz luzea erakusten diot, nola guztiak elkartzerakoan ezohiko hutsunea sortzen zaidan erdialdean. V moduko bat zabaltzen zait orain eskuin eskuko hatz-koskorretik aurrera. Hatz txikiak ere barrurantz okertzen hasiak zaizkit,

besteen atzean ezkutatu nahiko balute bezala. Urteetako arrastoak.

Saioa bukatuta, norbere gelara joan gara atsedean hartzera, eguneko hirugarren entrenamendua hasi aurretik. Ohe gainean utzi ditut eskularruak, horiek ere ohi baino handiagoak. Zazpi-zortzi neurriko eskularruak erabili ohi dituzte emakumezko atezainek; nik bederatzikoa.

Gelan bakarrik nagoela, berriro behatu ditut eskuak. Aldaketa franko jasan dituzte, gero. Etxetik 20 urterekin alde egin nuenetik, futbolera emandako bizitza oso bat jaurti baitiet. Bere min eta pozekin. Gihartsuak eta zabalak izaten jarraitzen dute, hala ere. Jokorako erne.

Asko baitute oraindik defendatzeko, zelaian nahiz zelaitik kanpo.

Atsedean hartuta, bihurturera egokitutako eskularruak hartuta noa zelairantz. Taldekideekin entrenatzen jarraitzeko ordua da.

* * * *

Miren Rubio Iturria

Kazetaria ikasketez eta bihotzez, kultur ikasketak ere egindakoa. Hainbat urtez jardun du irratian, Euskadi Irratian eta Radio Euskadin, batez ere. Kultur kolaboratzailea eta sustatzailea izan da hainbat egitasmo eta hedabideetan. Ez duzu abusatuko. Pederastia kasuak Euskal Herriko elizan (Elkar, 2017) liburuen egileetako bat izateaz gain, Txillardegi. Batasunaren pentsalaria (Jakin/EHU/AEK, 2019) biografiaren egilea ere bada.

Mila esker, Ainhoa, zure bizipenak, minak eta pozak nirekin hain eskuzabal partekatzeagatik.





LETRAK ETA FUTBOLA

LETRAS & FÚTBOL



FUNDAZIOA

LITERATURA
ETA FUTBOLA
TOPAKETAK
ENCUENTROS
DE LITERATURA
Y FÚTBOL

X EDIZIOA - EDICIÓN X
2019

letrak
eta
futbola

AZAROA

11-15

NOVIEMBRE

BIZKAIKO FORU
LIBURUTEGIA

BIBLIOTECA FORAL
DE BIZKAIA

SAN MAMES

www.letraketafutbola.com
www.letrasyfutbol.com

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputacion foral

CERVEZAS

SanMiguel
SINCE 1898



IRAKURRI=

BCD travel

MELIÀ
HOTELS